

# HERNANI KULTURA

URRIA  
ABENDUA  
2023

BITERI  
KULTUR  
ETXEA



# AGENDA 2023 • URRIA - ABENDUA

## URRIA

09:00	.....	<b>DIANA IGANDERO ETA JAIEGUNETAN.</b> Hernaniko Txistulariak	.....	<b>MUSIKA</b>	.....	10. or.
<b>02-07</b>	.....	<b>GORDIAK NEUZKANAK.</b> Benigno Albeniz "Iruntxiberri" artisaua	.....	<b>ERAKUSKETAK</b>	.....	24. or.
<b>10</b>	18:30	.....	<b>CAYO HUESO.</b> Oihane Amantegi	.....	<b>LITERATURA</b>	..... 30 or.
<b>16-24</b>	.....	<b>ITSASPEKO BIHOTZAK. ARETO LITERARIOA.</b> Galtzagorri Elkarte	.....	<b>ERAKUSKETAK</b>	.....	24. or.
<b>17</b>	19:00	.....	<b>HOGETA LAU ORDU EMAKUME BATEN BIZITZAN.</b> Stephan Zweig	.....	<b>LITERATURA</b>	..... 25. or.
<b>18</b>	19:00	.....	<b>AFTERSUN.</b> Charlotte Wells	.....	<b>ZINEKLUBA</b>	..... 5. or.
<b>18</b>	19:00	.....	<b>TREN NOCTURNO.</b> Martin Amis	.....	<b>LITERATURA</b>	..... 26. or.
<b>19</b>	19:30	.....	<b>DON INORREZ</b>	.....	<b>MUSIKA</b>	..... 6. or.
<b>20</b>	.....	<b>ALBOKA TOPAKETA.</b> Musika Eskola	.....	<b>MUSIKA</b>	.....	11. or.
<b>23</b>	17:30	.....	<b>IPUIN KONTAKETA</b> (3-5 urtekoak). Dorleta Kortazar	.....	<b>LITERATURA</b>	..... 33. or.
<b>23</b>	18:15	.....	<b>IPUIN KONTAKETA</b> (+6 urtekoak). Dorleta Kortazar	.....	<b>LITERATURA</b>	..... 33. or.
<b>26</b>	19:30	.....	<b>SU(I)RREALISMOA.</b> Logela Multimedia eta Circle of Trust	.....	<b>NAHASTEKAK</b>	..... 12. or.
<b>28</b>	12:00	.....	<b>ELEDER MAGOA.</b> Familiarra	.....	<b>ANTZERKIA</b>	..... 14. or.
<b>30-03</b>	.....	<b>INGURUMEN SAILA</b>	.....	<b>ERAKUSKETAK</b>	.....	24. or.

## AZAROA

09:00	.....	<b>DIANA IGANDERO ETA JAIEGUNETAN.</b> Hernaniko Txistulariak	.....	<b>MUSIKA</b>	.....	10. or.
<b>11</b>	12:00	.....	<b>ANDEREÑO.</b> Anita Maravillas	.....	<b>ANTZERKIA</b>	..... 15. or.
<b>14</b>	19:00	.....	<b>AUTO-STOPEKO IPUINAK.</b> Pako Aristi	.....	<b>LITERATURA</b>	..... 27. or.
<b>16</b>	19:00	.....	<b>GELDITASUNA EKAITZEAN.</b> Alberto Gastesi	.....	<b>ZINEKLUBA</b>	..... 5. or.
<b>16-30</b>	.....	<b>HERNANIKOMIK ERAKUSKETA.</b> Liburutegi Saila	.....	<b>ERAKUSKETAK</b>	.....	24. or.
<b>17-18</b>	11:00/14:30 - 17:00/20:00	.....	<b>II. HERNANIKOMIK</b>	.....	<b>LITERATURA</b>	..... 34. or.
<b>18</b>	18:00	.....	<b>SANTA ZEILIA KONTZERTUA.</b> Gazte Musika Banda	.....	<b>MUSIKA</b>	..... 9. or.
<b>18</b>	19:00	.....	<b>SANTA ZEILIA KONTZERTUA.</b> Musika Banda	.....	<b>MUSIKA</b>	..... 9. or.
<b>21</b>	.....	<b>SANTA ZEILIA KONTZERTUA.</b> Musika Eskola	.....	<b>MUSIKA</b>	.....	11. or.
<b>21</b>	18:30	.....	<b>ZOMORROTU.</b> Aintzane Usandizaga	.....	<b>LITERATURA</b>	..... 31. or.
<b>22</b>	.....	<b>MUSIKALEAN.</b> Musika Eskola	.....	<b>MUSIKA</b>	.....	11. or.

# AGENDA 2023 • URRIA - ABENDUA

<b>22</b>	17:30	.....	<b>IPUIN KONTAKETA</b> (3-5 urtekoak). Apaxi .....	<b>LITERATURA</b> .....	33. or.
<b>22</b>	18:15	.....	<b>IPUIN KONTAKETA</b> (+6 urtekoak). Apaxi .....	<b>LITERATURA</b> .....	33. or.
<b>22</b>	19:00	.....	<b>ROSA CÁNDIDA</b> . Auður Ava Ólafsdóttir .....	<b>LITERATURA</b> .....	22. or.
<b>23</b>	19:30	.....	<b>MARIA BERASARTE &amp; PEPE RIVERO</b> . Delirio .....	<b>MUSIKA</b> .....	7. or.
<b>24</b>	19:00	.....	<b>SANTA ZEZILIA KONTZERTUA</b> . Hernaniko Txistulariak .....	<b>MUSIKA</b> .....	10. or.
<b>28</b>	19:30	.....	<b>KANPORA SARTZEN</b> . Txalo Produkzioak .....	<b>ANTZERKIA</b> .....	20. or.
<b>29</b>	19:30	.....	<b>YERMA</b> . La Dramatica Errante .....	<b>ANTZERKIA</b> .....	21. or.

## ABENDUA

	09:00	.....	<b>DIANA IGANDERO ETA JAIEGUNETAN</b> . Hernaniko Txistulariak .....	<b>MUSIKA</b> .....	10. or.
<b>01</b>	19:30	.....	<b>TOTO</b> . Hika Teatroa .....	<b>ANTZERKIA</b> .....	22. or.
<b>02</b>	12:00	.....	<b>GURE KANOA</b> . Zurrunka Teatro .....	<b>ANTZERKIA</b> .....	16. or.
<b>04-15</b>	.....	.....	<b>OLIO PINTURAK</b> . Julian Gómez Burgueño .....	<b>ERAKUSKETAK</b> .....	24. or.
<b>05</b>	19:00	.....	<b>YO, ASESINO</b> . Antonio Altarriba (novela gráfica) .....	<b>LITERATURA</b> .....	28. or.
<b>12</b>	19:00	.....	<b>BAHIKETA</b> . Asel Luzarraga .....	<b>LITERATURA</b> .....	29. or.
<b>13</b>	19:00	.....	<b>PATERSON</b> . Jim Jarmusch .....	<b>ZINEKLUBA</b> .....	5. or.
<b>14</b>	19:30	.....	<b>ABUNDANCE</b> . Osa + Mujika .....	<b>DANTZA</b> .....	13. or.
<b>19</b>	18:30	.....	<b>ERRAIK</b> . Danele Sarriugarte .....	<b>LITERATURA</b> .....	32. or.
<b>20</b>	.....	.....	<b>TEKLATUEN KONTZERTUA</b> . Musika Eskola .....	<b>MUSIKA</b> .....	11. or.
<b>22</b>	19:30	.....	<b>BAGINAREN BAKARRIZKETAK</b> . Txalo Produkzioak .....	<b>ANTZERKIA</b> .....	23. or.
<b>23</b>	20:00	.....	<b>GABONETAKO KONTZERTUA</b> . Musika Banda + Dakapo Abesbatza .....	<b>MUSIKA</b> .....	9. or.
<b>24</b>	20:00	.....	<b>GABON ERRONDA</b> . Musika Banda .....	<b>MUSIKA</b> .....	9. or.
<b>27</b>	18:00	.....	<b>MAMUT</b> . Markeliñe Teatro .....	<b>ANTZERKIA</b> .....	17. or.
<b>30</b>	22:00	.....	<b>WILLIS DRUMMOND</b> . Hala Ere .....	<b>MUSIKA</b> .....	8. or.

## URTARRILA (2024)

<b>03</b>	18:00	.....	<b>KUTXARTEAN</b> . Teatro Paraiso .....	<b>ANTZERKIA</b> .....	18. or.
-----------	-------	-------	--	------------------------	---------



Hernani Zineklubaren xedea da zinemarekiko pasioa hedatzea hernaniarron artean, kalitatezko filmak eskainiz. Zinema klasikoa, euskal zinema, egile zinema eta zinema komertzialari lotutako filmak eskainiko dira, betiere jatorrizko bertsioan. Filmak erakustearekin batera, elkarrizketa, solasaldi eta gogoetak partekatzeko kulturgunea sortu nahi da.

*La iniciativa Hernani Zinekluba surge con objeto de difundir la pasión por el cine entre la ciudadanía de Hernani, ofreciendo películas de calidad, en versión original. Se proyectarán películas de cine clásico, cine vasco, cine de autor y cine comercial. Además de la proyección de películas, se pretende crear un espacio cultural para compartir entrevistas, coloquios y reflexiones.*



# • ZINEKLUBA



AURKEZPENA + **AFTERSUN** (2022, CHARLOTTE WELLS)

**2023-10-18 • 19:00**

Iraupena: 98 min.

Jatorrizko hizkuntzan, gaztelaniazko azpidatziekin / Versión original, subt. castellano

Doako sarrera / Entrada gratuita



AURKEZPENA + **GELDITASUNA EKAITZEAN**  
(2022, ALBERTO GASTESI)

**2023-11-16 • 19:00**

Iraupena: 97 min.

Jatorrizko hizkuntza, euskaraz-gaztelaniaz / Versión original euskera-castellano, subt. castellano

\*Ondoren, solasaldia zuzendariarekin eta filmeko protagonistekin.

**3,00 €**



AURKEZPENA + **PATERSON** (2016, JIM JARMUSCH)

**2023-12-13 • 19:00**

Iraupena: 113 min.

Jatorrizko hizkuntzan, euskarazko azpidatziekin / Versión original, subt. euskera

**3,00 €**



# MUSIKA.

## DON INORREZ

Bide Ertzean taldeak atsedenaldi mugagabea iragarri zuen 2016ko abenduan. Taldeko kantaria bakarlari gisa ari da ordutik hona. Don Inorrez, hortaz, Imanol Ubedaren alter ego bat da. Ezizen artistiko bat.

2021ean, hirugarren diskoa kaleratu zuen, *Esku hutsik* izenekoa. Lehen diskoko power pop estilora itzuli da, pandemiaren aurrean, rockaren botika proposatzeko gogoz. Letra ironikoak, gitarra zorroztuak eta erritmo biziz osatutako 10 abestik osatzen dute. 2022an, *Sastraka / Maleza* izeneko artefaktu literarioan hartu zuen parte Don Inorrezek, Pello Lizarralde idazlea, Jose Ignacio Agorreta margolaria eta Imanol Rayo zinegilearekin batera. 12 kantuz osatutako diskoa egin zuten.

*El grupo Bide Ertzean anunció un descanso indefinido en diciembre de 2016. El cantante de la banda, Imanol Ubeda, emprendió entonces un nuevo camino con Don Inorrez. En el concierto de Hernani ofrecerán un resumen de los trabajos publicados.*

- Imanol Ubeda: kantaria
- Karlos Aranzegi: bateria
- Fernando Neira: baxua
- Ruben Caballero: gitarra



**2023-10-19**

19:30

**Biteri kultur etxea**



8,00 €

**Sarrerak:**

urriaren 2tik aurrera

# • MUSIKA



## MARIA BERASARTE & PEPE RIVERO DELIRIO

Ahotsa eta piano doinuak uztartzen dituen *Delirio* proiektua aurkeztuko dute Maria Berasarte kantari donostiarrak eta Pepe Rivero piano-jole kubatarrak.

*Delirio* proiektuan bi mundu, bi kontinente musikal gurutzatzen dira. Musika klasikoa, jazz-arekiko pasioa eta norberaren sustraiak –euskar sustraiak eta kubatarrak– batzen ditu bi musikariok. Horrela, ahots eta pianoaren bidez, Joan Manuel Serraten *Aquellas pequeñas cosas*, Mikel Laboaren *Txoriak txori* eta Kurt Weill-en *Je ne t'aime pas* interpretatuko dituzte, besteak beste.

*La cantante donostiarra Maria Berasarte y el pianista cubano Pepe Rivero presentan el proyecto Delirio, un proyecto a piano y voz. Este proyecto es un cruce de dos mundos, dos continentes musicales, a los que une la música clásica, la pasión por el jazz y las raíces vascas y cubanas.*

• *Maria Berasarte: ahotsa*

• *Pepe Rivero: pianoa*



**2023-11-23**

19:30

**Biteri kultur etxea**



8,00 €

**Sarrerak:**

urriaren 30etik aurrera



# MUSIKA.

## WILLIS DRUMMOND HALA ERE

Willis Drummond rock taldea 2006an sortu zen. Ibilbide oparoa izan du urteotan Baionako taldeak, zazpi disko kaleratu ditu, azkena *Hala ere* izenekoa. Hain zuzen, diskoaren aurkezpen birako azken kontzertuetako bat izango da Hernanikoa. Rock elektrikoa, lan intelektual eta zuzena da disko berria, gogoeta eragin asmo duten letrekin. Garai bateko energia eta soinu gordina atxikitzeko helburua izan du taldeak, baina alde moderno eta garaikidea alde batera utzi gabe. Letrak dira horren adibide. Gaur egungo mundua islatu nahi izan dute letretan, hain zuzen, mundu horrek dakartzan kontraesanak eta kezkek agerian uztea.

*El grupo de rock de Baiona ofrecerá uno de los últimos conciertos de la gira del disco Hala ere. Rock eléctrico, con letras que llevan a la reflexión, mostrando las contradicciones que crean el nuevo mundo que vivimos.*

- Jurgi Ekiza: ahotsa, gitarra
- Felix Buff: bateria, perkusioak
- Xan Bidegain: baxua, koruak
- Vincent Bestaven: gitarra, teklatuak



**2023-12-30**

22:00

**Biteri kultur etxea**



8,00 €

**Sarrerak:**

azaroaren 13tik aurrera



# HERNANIKO MUSIKA BANDA . MUSIKA



## SANTA ZEZILIA KONTZERTUA

MUSIKA BANDA

**2023-11-18**

18:00 Gazte Banda / 19:00 Banda

Udaletxeko arkupeetan

## GABON ERRONDA

MUSIKA BANDA

**2023-12-24** • 20:00

Kale buelta Gudarien plazatik hasita

## GABONETAKO KONTZERTUA

MUSIKA BANDA + DAKAPO

ABESBATZA

**2023-12-23** • 20:00

Plazako elizan





# MUSIKA . HERNANIKO TXISTULARIAK

**Diana igandero  
eta jaiegunetan** • 09:00  
Kaxkoan eta auzo desberdinetan barrena

**SANTA ZEZILIA KONTZERTUA**  
**2023-11-24** • 19:00  
Biteri kultur etxean



# MUSIKA ESKOLA . MUSIKA



## ALBOKA TOPAKETA

2023-10-20

Biteri kultur etxean

## MUSIKALEAN

2023-11-22

Parte Zaharrean barrena

## SANTA ZEZILIA KONTZERTUA

2023-11-21

Biteri kultur etxean

## TEKLATUEN KONTZERTUA

2023-12-20

Biteri kultur etxean





# NAHASTEKAK.

## SU(I)RRREALISMOA LOGELA MULTIMEDIA ETA CIRCLE OF TRUST

Logela Multimedia eta Circle of Trust konpainiek sormen-indarrak batu dituzte eta ikuskizun berritzaile bat plazaratu dute. Dantza, interakzioa, bideo sorkuntza eta musika uztartzen dituen sorkuntza. Logela Multimediaren arte bisualek eta Zaragozatik datorkigun Circle of Trusten break dance harrigarriak bat egingo dute eszenan.

1940ko hamarkadan, bigarren mundu gerra piztu zen bitartean Parisko kafetegiak hainbat diziplinako artisten topaleku ziren. Horiek korrante artistiko berri bat sortu zuten: surrealismoa.

Las compañías Logela Multimedia y Circle of Trust han creado un espectáculo innovador que fusiona las artes visuales y la danza break dance, basándose en el movimiento surrealista de la década de los 40 en París.

- Zuzendaria: Imanol Garaizabal
- Ikus-entzunezkoak: Logela Multimedia
- Dantzariak: Carmina Sánchez, Diego Bayona, Alberto Prado, David Ventosa, Juanma Aragón, Marcos Pardo
- Musika: Ander Garaizabal & DJ PUT1



**2023-10-26 • 19:30**  
**Biteri kultur etxea**



8,00 €

Iraupena: 55 min.

**Sarrerak:**

urriaren 2tik aurrera

# • DANTZA



## ABUNDANCE OSA + MUJIKA

Desirari eustea oreka mantentzea da, baina baita izan ditzakegun esperientzia berrien aurrean pareta bat eraikitzea ere. Desira askatzeak, aldiz, gure zentzumenak areagotzen ditu, baina aldi berean, KAOSA eragiten du.

*Abundance* ikuskizunak indarrean dirauen pentsamolde erromantikoa ezbaian jartzen du. Printze eta printzesaren istorioa desagerrarazi nahi du, oraindik hain ukiezina den monogamia zalantzan jarritz.

Bost interprete oholtza gainean eta konpainiarentzat ezinbestekoak diren elementuak: estetika boteretsu eta koloretsua, mezu zuzen eta indartsu batekin.

*El espectáculo de danza Abundance pone en jaque la ideología romántica en la que estamos anclados, mediante una estética impactante y colorida, y un mensaje claro y potente.*

- Zuzendaritza: Osa + Mujika
- Dramaturgia eta koreografia: Jaiotz Osa
- Interpreteak: Cristina Aldasoro, Carlos Ojeda, Maddi Ruiz de Loizaga, Rafke

*Van Houplines, Jaiotz Osa*

- Jantziak eta eszenografia: Xabier Mujika
- Musika: Gartxot



2023-12-14 • 19:30  
Biteri kultur etxea



8,00 €

Iraupena: 52 min.

**Sarrerak:**

azaroaren 13tik aurrera




# HAUR ANTZERKIA.

## ELEDER MAGOA FAMILIARRA

Magiaz eta ilusioz betetako saioa ikusgarria eta dinamikoa eskainiko du Eleder magoak. Magia, jolasa, dantza eta irria nahastuko dira bertan, baina bereziki, publikoaren parte-hartzea handia izango da.

Ikuskizunak magia joko ikusgarriak eskainiko ditu eta ohiko magia ikuskizunetatik haratago doa.



**2023-10-28 • 12:00**  
**Biteri kultur etxea**



3,50 €

Iraupena: 60-75 min.

**Sarrerak:**

urriaren 2tik aurrera



# HAUR ANTZERKIA



## ANDEREÑO ANITA MARAVILLAS

Andereñoa ausarta, trebea eta atsegina da. Haurren gaitasunetan sinesten du, guztien gaitasunetan. Andereñoak eta bere gelako txikiak eskola eder bat eraiki dute elkarrekin, basoan animalia guztientzako tokia duen eskola bat.

Gure irakasleak gehien maite duen hitza askatasuna da, eta, beraz, bere klasea askatasunez haztea nahi du. Zoritarrez, nagusiek gerra hasiko dute, eta, ondorioz, gure protagonistek atzean utzi beharko dute amestutako eskola, maitasunetik eta elkarren zaintzatik eraikitako eskola.

- *Zuzendaria: Iván Alonso*
- *Ideia: Miren Larrea*
- *Txotxongiloen diseinua: Valentina Raposo*
- *Aktoreak: Maren Basterretxea, Valentina Raposo*
- *Musika originala: Fran Lasuen*



**2023-11-11 • 12:00**

**Adina: + 6 urte**  
**Biteri kultur etxea**



**3,50 €**  
**Iraupena: 55 min.**  
**Sarrerak:**  
urriaren 30etik aurrera



# HAUR ANTZERKIA.

## GURE KANOA ZURRUNKA TEATRO

Abba, Senegalgo arrantzale familia batean jaioetako haurra da. Berak ongi daki Maam Kumba kantuan hasten denean, bere bihotzean bizi den Arrain Argitsua mila kolorez piztu eta herritarrek arrantzatu dezaten, arrainak erakartzen dituela Arrainen Etxera. Horrela esaten diote itsasoari.

Zoritxarrez, itsasontzi handiek haien bizimodua eraldatu dute, Maam Kumba mutu gelditu da, isildu da jakituriaren kantua, mutu geratu da herria, arrainik gabe Arrain Etxea. Eta ondorioz, Abba ezustekoz betetako bidaia luzean murgilduko da.

- *Zuzendaritza: Josu Cámara*
- *Gidoia eta sorkuntza: Josu Cámara, Eñaut Gorbea, Odei Arregi*
- *Txotxongiloen manipulazioa: Eñaut Gorbea, Odei Arregi*
- *Musika originala: Pascal Dione*



**2023-12-02 • 12:00**

**Adina: + 4 urte**

**Biteri kultur etxea**



3,50 €

Iraupena: 55 min.

**Sarrerak:**

azaroaren 13tik aurrera



# HAUR ANTZERKIA



## MAMUT MARKELIÑE TEATRO

Hiru pertsonaia hominido otsoen mehatxutik babesten dira mamut baten hezurren ondoan. Eta bizirauteko borrokan, elkar ulertzea, lankidetzan aritzea eta elkarrekin sortzea erabakitzen dute, ezberdintasunak alde batera utzita. Mamuta eta bere hezurak sormenerako tresna bihurtzen dira. Horrela, fikzioaren aurkikuntza da aurkikuntzarik boteretsuena, beste errealitate eta aukera batzuei atea irekitzen dielako. Horrela, asmakizun edo aurkikuntza berri bakoitza gure existentzia lotzen duen korapilo berri bat bezalako da.

Markeliñeren jatorrizko sorkuntza da Mamut, familiei zuzendua, gizakiaren eboluzio prozesuari buruz.

- *Gidoia eta zuzendaritza: Markeliñe*
- *Aktoreak: Nerea Martínez, Fernando Barado, Maite Bayón (Gaizka Chamizo)*
- *Zuzendari teknikoa: Pako Trujillo*
- *Musika: Xabier Zeberio*



**2023-12-27 • 18:00**

Familiarra

**Biteri kultur etxea**



3,50 €

Iraupena: 50 min.

**Sarrerak:**

abenduaren 4tik aurrera



# HAUR ANTZERKIA.

## KUTXARTEAN TEATRO PARAISO

*Kutxartean* ikuskizunak mundua abentura handiak bizitzeko kutxa handi bat dela iradokitzen du, hain zuzen, 45 urteko ibilbidean, eszena Teatro Paraiso konpainiarentzat izan den moduan. Ikuskizun honek jolasaz gozatzea, lagunarteko zailtasunak gainditzera eta beste gizaki batzuekin batera edozein amets lor daitekeela irudikatzea gonbidatzen gaitu. Umorez betetako istorio honetan, kutxa batzuetan bizi diren bi lagunek leku ameslarietarako bidaia imajinatzen dituzte.

- *Egilea: Rosa A. García Sardon*
- *Zuzendaria: Tomas Fernández Alonso*
- *Aktoreak: Xabier Artieda, Xabier Flamarique, Aritz Bengoa*



**2024-01-03 • 18:00**

**Adina: + 4 urte**  
**Biteri kultur etxea**



3,50 €

Iraupena: 50 min.

**Sarrerak:**  
abenduarien 4tik aurrera



## EUSKALDUNEN JATORRIA, HISTORIA ETA IRRIA

**JON MARTINEZ  
ESNAOLA, TXIKI**

Euskaldunen benetako jatorria, kultura, historia umorezko bakarrizketa antzeztu honen bidez kontatua. Gure euskara, herria eta kulturaren bizi iraupena ezagutzeko garaia da.

Gure historian barrena bidaiatzeko aukera originala, antzezlan umoretsu honen bitartez. Big Bangetik hasita, gaur arte: *Nire aitaren kobazuloa defendatuko dut* lehen euskal pintadetatik, *euskalduna naiz eta furgoneta daukat* leloraino. Ez da bakarrizketa stand up soil-soila; bertan, umorea, historia, kantuak, musika, 3D efektuak, karaokea eta euskal pertsonaia desberdinen imitazioak izango dira. Lan honekin bakarrizketa egile gisa egindako ibilbideari amaiera emango dio *Txiki-k*.



**2023-10-22**

19:00

**Milagrosa**



5,00 €

**Sarrerak:**

urriaren 2tik aurrera



# ANTZERKIA.

## KANPORA SARTZEN TXALO PRODUKZIOAK

Umorez betetako emanaldi gordina. 2013ko martxoan, Xabinek seropositiboa zela jakin zuen; egun hartan, dena aldatu zen. Hamar urteren ostean, Xabinen eta Birusaren arteko harremanari buruz hitz egiteko garaia iritsi da.

Haien arteko elkarbizitzaren lekuko izango gara lan honetan, azken hamarkadan gertatutako pasadizoak errepasatuz. Pilulak, estigma, lotsa, kontsultak, beldurra, kulpa, bakardadea, osasun mentala, terapia, pandemia... Nola eragin du birusaren etorrerak Xabinen eguneroko bizitzan?

Lehen pertsona idatzitako lana da *Kanpora sartzen*. Sentimendu gordinenen eta umorearen arteko oreka bilatzen duena, eta seropositibo baten egunerokotasunean gertatzen diren kontuak azaltzen dituena.

- Zuzendaria: Aitziber Garmendia Mendizabal
- Egilea: Xabin Fernandez Zubeldia
- Zuzendari laguntzailea: Sara Cozar
- Aktoreak: Xabin Fernandez Zubeldia, Intza Alkain Ibaguren



**2023-11-28**

19:30

**Biteri kultur etxea**



8,00 €

**Sarrerak:**

azaroren 13tik aurrera

# • ANTZERKIA



## **YERMA** **LA DRAMATICA ERRANTE**

BERA artista bilbotar ospetsua da. Bere senarra, negozio-gizon arrakastatsua. Bere ahizpa, bizitzak harrapatutako emakumea. Bere amak inoiz besarkatu ez zuen pertsona hori... Eta bere bikote ohia ama izateko aukera eskaini ziezaiokeen pertsona.

Hau da gure Yermaren eszenatokia. Agian sakrilegioa da Yerma Lorcaren hitzik gabe planteatzea, baina honek gaur egun seme-alabak izateko ezintasunari aurre egin behar dioten emakume guztien hitzak biltzen ditu. Asko direlako, nahiz eta inork ez hitz egin haiei buruz. Naturala eta ederra den zerbait obsesibo eta mingarri bihurtzen duen emakumea da Yerma hau.

*ELLA es una reputada artista. Su marido, un exitoso hombre de negocios. Su hermana, una mujer atropellada por la vida... Este es el escenario de ELLA, nuestra YERMA. Esa mujer donde lo natural y bello se vuelve obsesivo y doloroso.*

- Zuzendaritza eta dramaturgia/ Dirección y dramaturgi: Maria Goiricelaya
- Aktoreak / Elenco: Sandra Fernández Agirre, Aitor Borobia, Loli Astoreka, Leire Orbe, Unai Izquierdo



**2023-11-29 • 19:30**

**Biteri kultur etxea**



**8,00 €**

Gaztelaniaz / en castellano  
Sarrerak / entradas:  
azaroaren 13tik aurrera /  
a partir del 13 de noviembre



# ANTZERKIA.

## TOTO HIKA TEATROA

Maik eta Joseluk, TOTO txakurtxoaren kustumak partekatzen dute. Toto galdu egin da Joselurekin zegoenean eta orain Maik ezin du bizitza bera gabe imajinatu. Maitasunik gabe.

Maik eta Joseluk modu latzean eztabaidatzen dute. Barrutik tragedia moduan bizi ohi diren eztabaidak, kanpotik ikusita, gehienetan barregarriak eta komikoak bihurtzen dira. TOTO, komedia olimpikoa da. TOTOk belaunaldiz belaunaldi iraun duen sagastien adina dauka edota txakurkume batena ere bai. TOTOK maitasunaren zuri-beltzaz hitz egiten du oro har, eta bere magnitude kosmiko osoan. Joselu, Mai eta Toto, oraintxe bertan, gizateriaren eta animaltasunaren artean daude.

- *Zuzendaria: Agurtzane Intxaurraga*
- *Egilea: Mafalda Bellido*
- *Aktoreak: Miren Gojenola, Asier Hernández*



Antzerki Zikloko azken saioa egunetz aldatu da, azaroaren 30erako deitutako greba feminista dela eta.

**2023-12-01**

19:30

**Biteri kultur etxea**



8,00 €

**Sarrerak:**

azaroaren 13tik aurrera



## BAGINAREN BAKARRIZKETAK TXALO PRODUKZIOAK

*Baginaren bakarrizketak* jatorri, adin, arraza eta maila sozial eta kultural desberdineko 2.000 emakumeri egindako elkarrizketen emaitza da. Elkarrizketa horietan, emakumeak beren sexualitatearekiko sentitzen dituzten erru eta lotsa sentipenetatik libre azalduko dira.

*Baginaren bakarrizketak* gehien antzeztu den testu garaikideetako bat da, eztabaida piztu, moldeak apurtu, dinamika sortu, eta lotsarik gabe, argi eta garbi azaltzen du emakumeen sexualitatea.

Umorea, samurtasuna eta, tarteka, izua adieraziko dute hiru aktoreek bakarrizketa horietan. Sare honetako ehunka emakumeri ahotsa jarriko diete, eta haiek bezala, barrearen ondoan poesia eta probokazioa jarriko dituzte.

- *Egilea: Eve Ensler*
- *Zuzendaria: Begoña Bilbao Lejarzegi*
- *Aktoreak: Itziar Urretabizkaia, Ainhoa Etxebarria, Intza Alkain*



**2023-12-22**

19:30

**Biteri kultur etxea**



8,00 €

**Sarrerak:**

abenduaren 4tik aurrera



# ERAKUSKETAK.



**GORDIAK NEUZKANAK**  
BENIGNO ALBENIZ "IRUNTXBERRI"  
ARTISAUA ETA ESKULTOREA  
Urriak 02-07

**ITSASPEKO BIHOTZAK. ARETO**  
**LITERARIOA**  
GALTZAGORRI ELKARTEA  
Urriak 16-24


**INGURUMEN SAILA**  
Urriak 30 - Azaroak 03

**HERNANIKOMIK ERAKUSKETA**  
LIBURUTEGI SAILA  
Azaroak 16-30

**OLIO PINTURAK**  
JULIAN GÓMEZ BURGUEÑO  
Abenduak 04-15



# SOLASALDIAK . LITERATURA



## HOGETA LAU ORDU EMAKUME BATEN BIZITZAN STEPHAN ZWEIG

2023-10-17 • 19:00

Gidaria: *Ane Mayo*

### Udal Liburutegia

Bi irrikaren historia: jokalaria baten irrikak, grinak, pasioak emakume batenarekin egiten du topo, hasieran beretzat ere arrotza zena edo onartu nahi ez zuena. Bere buruaz honako hau dio emakumeak: Berrogei urte nituela, batbatean gizona hil zitzaidan. Bigarren dolu-urtean, xederik gabeko existentzia makal baten aurrean aitorrezineko ihesaldian nindoala, martxoaren bukaeran Montecarlo aldera jo nuen. Egia esanda: asper eginda nengoen eta osatu nahian nenbilen goragale antzeko zerbait eragiten zidan barneko hutsune oinazetsu hura, gutxienez, kanpoko pizgarri txikiez elikatuz. Emakumeak 24 urte inguruko jokalaria bat ezagutu, eta hura jokoaren irrikatik, grinatik, pasiotik hastantzen saiatuko da.



# LITERATURA . SOLASALDIAK



## TREN NOCTURNO

MARTIN AMIS

2023-10-18 • 19:00

Gidaria/dinamizadora: *Slawka Grabowska*

### Udal Liburutegia

Ingeleseko narratibaren maisuetako batek sinatutako thriller bat. Mike Hoolihanek gizon baten izena, ahotsa eta moldeak ditu, baina emakumea da eta gizonak ditu gustuko; zehazki, gutxien komeni zaizkionak. Ipar Amerikako hiri bateko polizia detektibea ere bada, eta bere bizitzako kasurik txarrenari egin behar dio aurre (oso kontzeptu malgua), alkoholaren kontsolamendura jo gabe.

*Un thriller firmado por uno de los maestros de la narrativa en inglés. Mike Hoolihan tiene nombre, voz y modales de hombre, pero es mujer y le gustan los hombres; en concreto, los que menos le convienen. También es detective en el cuerpo de policía de una ciudad norteamericana, y se enfrenta al peor caso de su vida (un concepto muy flexible) sin poder siquiera recurrir al consuelo del alcohol.*

# SOLASALDIAK . LITERATURA



## **AUTO-STOPEKO IPUINAK**

PAKO ARISTI

**2023-11-14** • 19:00

Gidaria: *Ane Mayo*

### **Udal Liburutegia**

Gauero ateratzen da kalera eta lagunekin galdutako minutu eta orduetan ikasi du ez dakiela bizitza zer-nolako den bertan buru-belarri sartuzale ez denak. Eskarmentu handia du, begia beti erne; inguruan gertatzen den-dena jaso eta, bere buruaren labirintuan jira eta bueltaka ibili ondoren, guri eskaintzen digu. Ipuin hauetan ez du irakurleak aurkituko bizitzari buruzko teoria handinahi bezain arrotzik, gizon-emakumeen arteko harremanei emandako begirada ironiko eta lagunkoa baizik.



## **ROSA CÁNDIDA**

AUÐUR AVA ÓLAFSDÓTTIR

**2023-11-22** • 19:00

Gidaria/dinamizadora: *Slawka Grabowska*

### **Udal Liburutegia**

Arnljótur gazteak bere etxea uztea erabakitzen du, bere anaia biki artista, bere aita adindua eta labazko mendien ilunabarreko paisaiak. Amak istripu bat izan berri du, eta, heriotzaren atarian, oraindik indarrak biltzen ditu deitzeko eta azken aholku batzuk emateko. Nobela honek norberaren bilaketaz hitz egiten digu eta Islandiako literaturarako sarrera eman.

*El joven Arnljótur decide abandonar su casa, a su hermano gemelo artista, a su padre octogenario y los paisajes crepusculares de montañas de lava cubiertas de líquenes. Su madre acaba de tener un accidente y, al borde de la muerte, aún reúne fuerzas para llamarle y darle unos últimos consejos. Una novela que nos habla de la búsqueda de uno mismo y nos sirve como introducción a la literatura de Islandia.*



# LITERATURA . SOLASALDIAK



## **YO, ASESINO**

ANTONIO ALTARRIBA (NOVELA GRÁFICA)

2023-12-05 • 19:00

Gidaria/dinamizadora: *Slawka Grabowska*

### **Udal Liburutegia**

Enrique Rodríguez, Euskal Herriko Unibertsitateko Artearen Historiako irakaslea, bere karreraren gailurrean dago eta, hain zuzen ere horregatik, bere lankideen lehiri aurre egin behar dio. Aldi berean, bere zaletasun handia lantzen du: hilketa arte-forma gisa. Antonio Altarribak (Komiki Sari Nazionala) sinatutako eleberrri grafikoa, giza moralaren anbiguotasunari buruz hausnartzera gonbidatzen gaituena.

*Enrique Rodríguez, profesor de Historia del Arte en la Universidad del País Vasco, está en la cima de su carrera y, precisamente por ello, tiene que lidiar con la rivalidad de sus compañeros de profesión. En paralelo, cultiva su gran afición: el asesinato como forma de arte. Una novela gráfica firmada por Antonio Altarriba (Premio Nacional de Cómic) que nos invita a reflexionar sobre la ambigüedad de la moral humana.*

# • LITERATURA



## **BAHIKETA**

**ASEL LUZARRAGA**

**2023-12-12 • 19:00**

Gidaria: *Ane Mayo*

### **Udal Liburutegia**

Buenos Airesko La Hoz egunkarian luzetsita daude, Matxinen artikulua iristen ez delako. Ez artikulua, ez Matxin bera. Haren inguruko berririk ez dagoela jabetzean, alarmak piztu zaizkio Eduri, lagun mina baitu; Euskal Herritik ihesi alde egin zuenean, Matxinek lagundu zion Argentinara. Bizi-bizi ari da Eduren burua, arriskuak ez baitira gutxi: ultra-eskuinak bahituko al zuen laguna, edo zerbitzu sekretuek? Nongotarrek, baina? Edo Euskal Herrira itzultzea erabaki ote du, berari ezer esan gabe? Sortuz gero inoiz desagertu ez diren beldurrak, mamuak, kontzientzia txarra, eldarnioak...



# LITERATURA.

## EMAKUMEEN EUSKAL LITERATURA MINTEGIA

Euskal eta zehazki euskarazko emakume idazleen lanak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko tailerra da hau.

**Gidaria: *Alaine Agirre***



**CAYO HUESO**  
OIHANE AMANTEGI  
2023-10-10 • 18:30  
**Udal Liburutegia**

Floridatik dingilizka geratutako azken uhartea da Cayo Hueso, Antillen erdian igeri, Kubaren eta kontinentearen erdibidean. Hantxe bizi da, otarrain-arrantzan, istorio hau kontatzen duen kapitain zaharra, eta hantxe agertuko dira, ezustean, nobelaren gainerako protagonistak: Virgil musika kritikaria aurrea eta Maudey jazz kantaria gero, bere bandarekin. Aurreko liburuan (Ibaiertzeko ipuina) erakutsitako nortasuna eta dotorezia nabarmenak dira honakoan ere: maitemin istorio betikoaren bariazio jolasak, ñabarduraz betetako estiloa, film zahar bateko dekoratua dirudien jokalekua, belarriari gozo sartu eta bertan itsasten den musikaren oihartzuna.



# • LITERATURA

## EMAKUMEEN EUSKAL LITERATURA MINTEGIA

Euskal eta zehazki euskarazko emakume idazleen lanak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko tailerra da hau.

**Gidaria: *Alaine Agirre***

AINTZANE USANDIZAGA  
**Zomorrotu**



ERAF

### **ZOMORROTU**

#### **AINTZANE USANDIZAGA**

**2023-11-21 • 18:30**  
**Udal Liburutegia**

"Bost istorio luze, barnean hainbat atal dituztenak, eta batetik bestera igarotzen diren pertsonaiak, pasadizoak, erreferentziak. Ere mu lanbrotsu batean mugitzea hautatu du Aintzane Usandizagak: fokua pertsonaia batetik bestera pasatuz, perspektiba-aldaketak zalanztan jarriko digu ziurtzat geneukana, zer den errealia eta zer irudikatua. Autoeskolako irakasle sasifi losofoa, keinu bilduma egiten duen neska beti-jatorra, lesio bat eta landare asko zaindu behar dituen aita kezkatua, ikuspegi originalen bila dabilen musikaria... lausoak dira pertsonaiak ere, labainkorrak haien arteko harremanak, anbiguoak sentimenduak."



# LITERATURA.

## EMAKUMEEN EUSKAL LITERATURA MINTEGIA

Euskal eta zehazki euskarazko emakume idazleen lanak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko tailerra da hau.

**Gidaria: *Alaine Agirre***



### ERRAIK

DANELE SARRIUGARTE

2023-12-19 • 18:30

**Gidaria idazlea bera izango da.**

**Udal Liburutegia**

"Bikote haustura mingarri bat du abiapuntu eleberriak; emakumezko baten kontakizuna bakarrik iritsiko zaio, ordea, irakurleari, obsesio bihurtuta. Horregatik, ez ohiko intentsitatez barneratu da idazlea pertsonaiaren barrunbeetan, haren zokorik ezkutuenak, erraiak, agerian utziz, ez bere buruaren ez inoren aurrean biluzteko lotsarik gabe. Aldez aurretiko aurreiritzirik gabeko barne bakarriketa batean murgilduta, protagonistak ordura arteko bere bikote harremanak xehatuko ditu, inoiz utzi ez duten mamuen aurrez aurre jarritz. Narratzaileak egurra banatzen du ezker-eskuin, eta egurra banatzen du bere buruarentzat ere, tonu ironiko nabarmenarekin."





## DORLETA KORTAZAR



**2023-10-23**  
**17:30** 3-5 urtekoak  
**18:15** +6 urtekoak  
**Biteri kultur etxean**

## APAXI

**2023-11-22**  
**17:30** 3-5 urtekoak  
**18:15** +6 urtekoak  
**Biteri kultur etxean**






## LITERATURA . II. HERNANIKOMIK

**Azaroak 17 eta 18**

11:00/14:30 – 17:00-20:00

**Atsegindegin**

- Komikiaren azokan, besteak beste, postu hauek egongo dira: Harriet, Xabiroi, Elkar, Gaueko komiki denda (Farmazia beltza eta Txalaparta).




- Komikien aurkezpenak:
  - Hiru etxe Santa Monikan. Mikel Begoña eta Iñaket.
  - Iker eta Ixone (edizio osoa). Gregorio Muro Harriet.
  - Azken mangak (Mangaberriko kideekin batera)... Eta gehiago!

## II. HERNANIKOMIK . LITERATURA



- *Joseph Camino saria: Juan Luis Landa ilustratzaileari emango zaio bere ibilbide oparoagatik.*
- *Erakusketa: Juan Luis Landaren ibilbidea eta Orreaga komikietan*



- *Irakurketa txokoa: komikiak ikusi edo irakurri nahi dituenarentzat gune bat egongo da.*

## BITERI KULTUR ETXEA

Nafar kalea, 18  
20120 Hernani  
T. 943 552 962

[kultura.hernani.eus](http://kultura.hernani.eus)



HernaniKultura



@HernaniKultura



@hernanikultura



@libhernani



@libhernani

---

Antolatzailea



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN